<b>Hartzaleak Destinatarios</b>	<b>Gaitutako kontrol-erakundeak</b> Organismos de control habilitados
<b>Eskubideak Derechos</b>	<b>Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.</b> Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.
<b>Informazio gehigarria</b> Información adicional	<b>Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehatua kontsulta dezakezu gure webgunean (<a href="https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/134900-cap02-es.shtml">https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/134900-cap02-es.shtml</a>)</b> Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web ( <a href="https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/134900-cap02-es.shtml">https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/134900-cap02-es.shtml</a> )

#### Araudia Normativa

- 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27ko (DBEO), pertsona fisikoentzako buruzko, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraera indargabetzen duena Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), relativo a la protección de las personas físicas con respecto al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de dichos datos, y por el cual se deroga la Directiva 95/46/CE
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, **Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa** Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

**AGINDUA, ZENBAIT ALDERDI GARATZEN DITUENA 513/2017 ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ ARAUTZEN DIREN SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIOEN ESPARRUAN.**

Industriako segurtasunaren ordenamendu juridikoa eremu sektorial askotan artikulatzen da, eta eremu horietako bat suteetatik babesteko instalazioak dira. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 7. artikuluak hau dio industriako segurtasunari buruz: «Industriako segurtasuna nahitaezko xedapen-sistema bat da, eta bi helburu ditu: arriskuei aurrea hartzea eta muga jartzea, batetik, eta, bestetik, istripuen aurkako babesea, istripu horiek pertsona, ondasun edo ingurumenari kalte egiteko modukoak badira eta industria-jarduerak sortuak badira, edo instalazioen edo ekipoen erabilerak, funtzionamenduak eta mantentzeak sortuak, edo industriako produktuak ekoiztearen, erabiltzearen edo kontsumitzearen, biltegiratzearren edo zakarretara botatzearen ondorioz sortuak.»

Suteetatik babesteko instalazioen arloko araudiak, egun, oinarritzat du maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua, Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamendua onartzen duena. Estatuaren arau hori indarrean jartzeak zenbait arazo sortu ditu, ordea, eta agindu honen bidez, hain zuzen ere, konponbidea eman nahi zaie.

Arazo horiek, funtsean, lotuta daude 513/2017 Errege Dekretuan jasotako aldizkako ikuskapenen araubidearekin, zeina aplikatuko baitzaie ikuskapenen araubide espezifikorik ez duten instalazioei, hau da, honako hauei: erabilera industrialekoak ez diren eraikinetan dauden suteetatik babesteko instalazioak, eta erabilera industrialeko establezimenduetan dauden suteetatik babesteko instalazioak, abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartuta ez daudenak (2267/2004 Errege Dekretua, Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duena).

Hori guztia dela eta, agindu honen aplikazio-eremuan sartuta daude bai industrialak ez diren instalazioak, bai erabilera industrialeko establezimenduetako instalazioak, 2267/2004 Errege Dekretua aplikatzen ez zaienak, establezimendu horiek eraikita edo ezarrita zeudelako errege-dekretu hori indarrean jarri baino lehen, edo errege-dekretu hori aplikatzea arrazoitzen zuen eraldaketarik, aldaketarik edo lekualdatzerik izan ez dutelako. Aitzitik, ez dira sartzen agindu honen aplikazio-eremuan lege espezifikoen bidez araututa dauden suteetatik babesteko instalazioak, hala nola Estatuko errepideetako tuneletan daudenak.

Esan bezala, 513/2017 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren atzemandako arazo horiek lotuta daude Estatuaren erregelamendu horretan jasotako aldizkako ikuskapenen araubidearekin. Izan ere, beharrezkotzat jotzen da araubide horren zenbait alderdi garatzea. Alderdi horien artean, azpimarratzekoak dira aldizkako ikuskapen baten ondoren atzeman daitezkeen akats eta ez-betetzeak, eta horiek zuzendu beharra. 513/2017 Errege Dekretuaren aldizkako ikuskapenen araubidearekin lotuta, erregistratu gabeko instalazioen erregulazioa dago; Izan ere, aipatutako araubidea bete beharrak azaleratu ditu halako instalazioak.

Alderdi horietaz gainera, agindu honetan zenbait hobekuntza ezartzen dira, industrialak ez diren suteetatik babesteko instalazioen titularrek izan beharreko dokumentazio teknikoari buruz. Hala, 513/2017 Errege Dekretua aplikatu behar zaien eta agindua indarrean jarri ondoren zerbitzuan hasten diren instalazioen titularrek memoria bat eta teknikari eskudun batek egindako planoak izan behar dituzte. Dokumentu horiek, bai eta egun Eraikingintzaren Kode Teknikoan eskatzen den instalazio-ziurtagiria ere,

ezinbestekoak dira instalazioaren egokitasun teknikoa bermatzeko, eta, gainera, ez dira garestiak.

Eskumenei dagokienez, agindu hau segurtasun industrialaren arloko da, honen bitartez arautuko baitira arlo horretako alderdi teknikoak, eta, horregatik, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren esparruan sartzen da.

Hori guztia kontuan hartuta, eta bat etorrita Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 61. artikuluan, azaroaren 12ko 8/2004 Legearen azken xedapenetako bigarrenean eta Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan ezarritakoarekin, honako hau

## EBAZTEN DUT

### I. KAPITULUA

#### **Xedapen orokorrak**

##### **1. artikulua.– Xedea.**

1.– Agindu honen xedea da honako alderdi hauek arautzea haren aplikazio-eremuan sartutako instalazioei buruz, betiere Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan xedatutakoaren esparruan:

- a) Suteetatik babesteko instalazioen titularrei eskatu behar zaien dokumentazio teknikoa.
  - b) Suteetatik babesteko instalazioetan aldizkako ikuskapenak egiteko araubidea garatzea, bai eta araubide horrekin lotutako titularren eta agente laguntzaileen betebeharrik ezartzea ere.
  - c) Erregistratu gabeko suteetatik babesteko instalazioen araubide juridikoa.
  - d) Erregistratu gabeko instalazioak erregistratzeko baldintzak.
  - e) Arautza zer egoeratan den bateragarria araudia sektoreko araudi espezifikoarekin.
- 2.– Ez da agindu honen xedea ezartzea zer baldintza bete behar dituzten eraikin eta establezimenduetako suteetatik babesteko instalazioek.

##### **2. artikulua.– Aplikazio-eremua.**

1.– Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoan dauden suteetatik babesteko instalazioei aplikatuko zaie, baldin eta maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuan edo hori ordezten duen arauan sartuta badaude (513/2017 Errege Dekretua, Suteetatik Babesteko Instalazioen Erregelamendua onartzen duena).

2.– Ez dira sartzen agindu honen aplikazio-eremuan abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartuta dauden suteetatik babesteko instalazioak, ez eta arau espezifikoen bidez araututakoak ere (2267/2004 Errege Dekretua, Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duena).

## II. KAPITULUA

### Suteetatik babesteko instalazioen dokumentazio teknikoa

#### 3. artikulua.– Nahitaezko dokumentazioa.

1.– Suteetatik babesteko instalazioen titularrek honako xedapen hauetan aurreikusitako dokumentazioa izan behar dute, xedapen horietan ezarritako baldintzetan: agindu hau; 81/2021 Dekretua, ekainaren 30ekoa, Segurtasun Industrialari buruzkoa, eta gainerako ordenamendu juridikoa.

2.– Nahitaezko dokumentazioa izango da suteen aurkako babesaren arloan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko aurkeztu edo eduki beharrekoa, bete behar diren xedapenekin bat etorri.

#### 4. artikulua. – Lehendik dauden instalazioak.

1.– Agindu hau indarrean jartzean lehendik zerbitzuan dauden suteetatik babesteko instalazioen titularrek aplikatzeko zaien araudian aurreikusitako dokumentazioa izan behar dute.

Hori hala aplikatuko da, hargatik eragotzi gabe Administrazioari lehenago aurkeztutako dokumentuak berriz ez aurkeztekо eskubidea, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

2.– Erregistratu gabeko instalazioek agindu honetako 17. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.

#### 5. artikulua.– Instalazio berriak.

1.– Agindu hau indarrean jarri ondoren zerbitzuan hasten diren suteetatik babesteko instalazioen titularrek, sektoreko erregeleamenduan aurreikusitako dokumentazioaz gainera, dokumentu hauek izan behar dituzte:

a) Teknikari eskudunak egindako memoria, honako hauek bilduko dituena: instalazioaren titularra; enpresa instalatzailea; erabilera industrialekoa ez den eraikinean edo haren eremuan babestu beharreko arearen hedadura, eta zerbitzuan jarriko den suteetatik babesteko instalazioaren irismena, haren azalera (m<sup>2</sup>) eta kokalekua zehaztuta. Memoria horretan zehaztuko dira, halaber, instalatutako ekipamendu eta sistemak, haien ezaugarri teknikoak, markak, egokitasun-ebaluazio teknikoak, halakorik balego, eta merkataritza-markak eta modeloak. Memorian adieraziko dira, orobat, instalazioen dimentsionamenduan egindako kalkulu teknikoak.

b) Teknikari eskudunak egindako planoak, eta, horien artean, honako hauek:

b.1) Kokapen-planoa eta kokaleku-planoa.

b.2) Suteetatik babesteko ekipamendu eta sistemen planoak: oin-planoak, osagaien kokapena zehaztuta, ekipamenduen eta sistemen irismena eta jarduketak zedarrituta, babestu beharreko eremu eta guneei dagokienez, arauzko distantziak egiaztatzeko moduan. Hasiera-eskema, altxaera-planoak eta xehetasunekoak, hala behar izanez gero.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako dokumentazioa prest eduki ezean, dokumentazio-arloko ez-betetzet hartuko da, agindu honen 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta artikulu horretako 2. apartatuan aurreikusitako moduan zuzendu beharko da.

3.– Agindu hau indarrean jarri ondoren abian jartzen diren instalazioen instalazio-ziurtagiriek I. eranskinean jasotako ereduaren araberakoak izan beharko dute.

### III. KAPITULUA

#### **Suteetatik babesteko instalazioen kontrola**

##### **6. artikulua.– Araubide juridikoa.**

1.– Suteetatik babesteko instalazioen kontrola Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 20. artikuluan berariaz aurreikusitako moduen bitartez egingo da, bai eta agindu honetan edo sektoreko gainerako erregelamenduetan aurreikusitako bideen bitartez ere.

2.– Agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren suteetatik babesteko instalazioen aldizkako ikuskapenak 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta, hala badagokio, haren laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraituz egingo dira.

3.– Instalazioei, 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluko bigarren apartatuan zehazten diren erabilera eta ezaugarriak izan arren, 513/2017 Errege Dekretuan jasotako ikuskapen-araubidea aplikatuko zaie, baldin eta arrisku berezi handiko lokal bat ebakuatzeko balio badute, edo eraikin batean integratuta badaude eta hark duen suteetatik babesteko sistemaren parte badira, betiere, azken kasu horretan, sistema hori 513/2017 Errege Dekretuan aurreikusitako ikuskapen-araubidearen mende badago.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzeko izango da, nahiz eta erabilera bakoitzari lotutako instalazioek titular desberdinak izan.

4.– Honako instalazio hauei, ordea, ez zaie aplikatuko 513/2017 Errege Dekretuan jasotako ikuskapen-araubidea:

a) Beren araudi espezifika dela-eta ikuskapen-araubide berezia bete behar duten instalazioak, nahiz eta kokatuta dauden eraikinaren suteetatik babesteko sistema 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako ikuskapenen mende egon.

b) Instalazioen araubide-sektorialean ikuskapen bidezko kontrol bat jasotzen baldin bada, errege-dekretu horretan aurreikusitakoaren antzekoa dena. Ikuskapen-kontrola antzekoa dela zehazteko, aintzat hartuko dira, batetik, ikuskapenetan egiten diren egiaztapen teknikoak eta, bestetik, horiek 513/2017 Errege Dekretuaren esparruan gaitutako kontrol-erakunde batek eginak izatea.

##### **7. artikulua.– Ikuskapen-aktak.**

1.– Ikuskapen baten ondorengo akta egiteko, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 24. artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

2.– Alde batera utzi gabe 513/2017 Errege Dekretuaren 22. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoa, instalazioaren mantentze-lanak egitea dagokion mantentze-enpresaren

pertsona eskudunak ere sinatu ahal izango du ikuskapen-akta, hora egiteko unean eta, betiere, pertsona hori bertan badago.

#### **8. artikulua.- Ikuskapenean dokumentuak egiaztatzea.**

- 1.– Kontrol-erakundeek egiaztatuko dute ikuskapenak egiten diren instalazioen titularrek baditztela sektoreko-araudian eskatzen diren dokumentuak.
- 2.– Erregistratu gabeko instalazio batean egiten bada ikuskapena, kontrol-erakundeak egiaztatuko du instalazioaren titularrak agindu honen 17. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa duela.
- 3.– Nahitaezko dokumentazioa falta dela egiaztatz gero, kontrol-erakundeak dokumentazio-arloko ez-betetzet joko du, agindu honen 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

#### **9. artikulua.- Ikuskapenaren emaitza jakinaraztea Administrazioari.**

- 1.– Organo eskudunari jakinarazi behar zaio aldizkako ikuskapenen emaitza, urtarilaren 16ko 5/2018 Dekretuan eta bete beharreko gainerako arauetan ezarritakoari jarraituz (5/2018 Dekretua, Industria-segurtasunari buruzko erregelamentazioa bete behar duten instalazio eta ekipoak aldizka ikusatzeko kudeaketa-prozedurari buruzkoa).
- 2.– Erregistratu gabeko instalazio baten ikuskapenaren emaitza Administrazioari jakinarazten zaionean, instalazio hori inskribatu beharra dago, agindu honen 19. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

#### **10. artikulua.– Akats oso larriak.**

- 1.– Kontrol-erakundeak ikuskapen-aktan halakotzat jotzen dituenak izango dira akats oso larriak, hargatik eragotzi gabe agindu honetan edo sektoreko gainerako araudian horri buruz ezarritakoa betetzea.
- 2.– Ikuskapen-aktan oso larritzat edo oso larri modukotzat jotzen diren akatsak indarreko araudiari jarraituz zuzendu beharko dira.
- 3.– Artikulu honetan aurreikusi gabeko guztian, urtarilaren 16ko 5/2018 Dekretuan edo aplikatu beharreko beste edozein xedapenetan xedatutakoa bete beharko da (5/2008 Dekretua, Industria-segurtasunari buruzko erregelamentazioa bete behar duten instalazio eta ekipoak aldizka ikusatzeko kudeaketa-prozedurari buruzkoa).

#### **11. artikulua.– Akats larriak.**

- 1.– Kontrol-erakundeak ikuskapen-aktan halakotzat jotzen dituenak izango dira akats larriak, hargatik eragotzi gabe agindu honetan edo sektoreko gainerako araudian horri buruz ezarritakoa betetzea.
- 2.– Ikuskapen-aktan larritzat edo larri modukotzat jotzen diren akatsak indarreko araudiari jarraituz zuzendu beharko dira. Zuzentzeko epea 6 hilabetekoa izango da.

3.– Akatsak aurreko apartatuan ezarritakoari jarraituz zuzendu ondoren, akatsok atzeman zituen gaitutako kontrol-erakundeak egiaztatu beharko du zuzenketa hori, eta bigarren ikuskapen-akta bat egin, gertaera aipagarriak jasota.

Organo eskudunari jakinarazi behar zaio akats-zuzenketaaren egiaztapenaren emaitzaren berri, agindu honen 9. artikuluan ezarritako eran.

4.– Ikuskapen-aktan akats larriak jaso dituen kontrol-erakundeak egiaztatu badu zuzentzeko epean ez zaiola jakinarazi akatsok zuzendu direla, ikuskapen-bisita egingo du instalazioan, eta emaitza bigarren ikuskapen-akta batean jasoko du.

Organo eskudunari jakinarazi behar zaio bigarren ikuskapen horren emaitzaren berri, agindu honen 9. artikuluan ezarritako eran.

## **12. artikulua.– Akats arinak.**

1.– Kontrol-erakundeak ikuskapen-aktan halakotzat jotzen dituenak izango dira akats arinak, hargatik eragotzi gabe agindu honetan edo sektoreko gainerako araudian horri buruz ezarritakoa betetzea.

2.– Ikuskapen-aktan arintzat edo arin modukotzat jotzen diren akatsak indarreko araudiari jarraituz zuzendu beharko dira. Zuzentzeko epea 12 hilabetekoa izango da.

3.– Ikuskapen-aktan akats arinak jaso dituen kontrol-erakundeak egiaztatu badu zuzentzeko epean ez zaiola jakinarazi akatsok zuzendu direla, horren berri emango dio organo eskudunari, agindu honen 9. artikuluan aurreikusitako eran.

## **13. artikulua.– Dokumentazio-arloko ez-betetzeak.**

1.– Nahitaezko dokumentazioa ez edukitzea dokumentazio-arloko ez-betetzetza joko da, agindu honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

2.– Agindu honetako 5.1 artikuluan aipatutako dokumentazioa ez edukitzea zuzendu beharko da, dokumentazio hori aurkeztuta, hain zuzen ere. Urtebetekoa izango da hori zuzentzeko epea.

3.– 513/2017 Errege Dekretuaren bidez onartutako suteetatik babesteko instalazioen Erregelamenduaren II. eranskineko 6. puntuaren aipatzen den mantentze-eragiketei buruzko dokumentazioa eskuragarri ez izatea zuzendu beharko da, eta, horretarako, egiaztatu beharko da instalazioan behin behintzat gauzatu direla aipatutako II. eranskinean aurreikusitako nahitaezko mantentze-programen eragiketa guzti-guztiak.

Apartatu honetako zuzenketak egiteko epea 6 hilabetekoa izango da.

4.– Agindu honetako 17.1 artikuluan aipatutako dokumentazioa ez edukitzea zuzendu beharko da, eta, horretarako, kasuan kasuko instalazioari lotutako epigrafe guzietan gaitutako enpresa instalatzailak txosten bat aurkeztuko du, agindu honetako II. eranskinaren ereduari jarraituz.

Apartatu honetako kasuetan, urtebetekoa izango da zuzenketa egiteko epea.

5.– Dokumentazio-arloko ez-betetzea aldizkako ikuskapen batean atzematen bada, ikuskatzen jardun duen kontrol-erakundearen aurrean egin beharko da zuzenketa.

Kontrol-erakundeak Administrazioari jakinarazi beharko dio, 9. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ez-betetzea forman eta epean zuzendu dela, edo, hala badagokio, ez dela zuzendu aurreikusitako forman eta epean.

6.– Artikulu honetan aipatzen diren dokumentazio-arloko ez-betetzeak ez zuzentzeak berekin ekar dezake diziplina-prozedura industrial bat hastea, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, hargatik eragotzi gabe ez-betetze horiek ez zuzentzeak ekar litzakeen erantzukizunak.

7.– Apartatu honetan xedatutakoaren arabera dokumentazio-falta ez-betetzetza jotzeaz gainera, erantzukizun penal, administratibo edo zibilak ere izango dira, dokumentazio hori ez izateagatik, ez aurkezteagatik, hala egin beharra zegoenean, edo ez-betetze horrekin lotutako beste edozein egitaterengatik.

#### IV. KAPITULUA

##### **Erregistrotu gabeko suteetatik babesteko instalazioak**

###### **14. artikulua.- Definizioa.**

Agindu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, erregistrotu gabeko instalazioak izango dira agindu hau indarrean jartzean jardunean zeudenak, jardun hori segurtasun industrialeko administrazioaren aurrean izapidetu gabe.

Definizio hori berdin aplikatuko da, nahiz eta izapidetu ez izanaren arrazoia bi hauetako bat izan: bete beharreko araudian eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez izana edo instalazioa zerbitzuan jartzean dokumentazioa aurkeztu beharra aurreikusi ez izana.

Nolanahi ere, zenbait instalazio definizio horretatik kanpo geratuko dira, baldin eta haien araudi espezifikoan berariaz xedatuta badago ez dela beharrezkoa segurtasun industrialeko administrazioari jakinaraztea zerbitzuan hasiko direla.

###### **15. artikulua.- Araubide juridikoa.**

1.– Zerbitzuan jartzean indarrean zegoen araudiaren arabera arautuko dira erregistrotu gabeko suteetatik babesteko instalazioak, non eta erregelamenduan besterik adierazten ez den.

2.– Erregistrotu gabeko suteetatik babesteko instalazioek agindu honetako II.eta III. kapituluetañ dokumentu teknikoari eta kontrolari buruz xedatutakoa bete beharko dute, kapitulu horietan eta honetan aurreikusitako baldintzetan.

###### **16. artikulua.- Erregistrotu gabeko instalazio baten berri jakinaraztea.**

1.– Erregistrotu gabeko instalazioen titularrek, Administrazioaren aurrean aurkeztutako jakinarazpen baten bidez, instalazio horien berri jakinaraziko diote Administrazioari, bai eta honako hauen berri ere: noiz jarri diren zerbitzuan, zer dokumentazio duten eta arauz ezarritako beste edozein alderdi.

2.– Lehenengo apartatuan aurreikusitako jakinarazpenarekin batera, agindu honen 17. artikuluarekin bat etorrita aurkeztu beharreko dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute.

17. artikuluko dokumentazioa eduki ezean, agindu honetako 13.4 artikuluan aipatzen den txostena eta 18.2 artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko dute jakinarazpenarekin batera.

3.– Artikulu honetan aurreikusitako betetzeko aurkeztutako jakinarazpenak agindu honen III. eranskinean jasotako ereduari jarraituz egingo dira.

4.– Artikulu honetan ezarritakoaz gainera, instalazioetan egindako aldizkako ikuskapenen emaitza adieraziz edo arauz aurreikusitako beste bideren bat erabiliz jakinarazi ahal zaio Administrazioari erregistratu gabeko instalazioen berri.

## **17. artikulua.– Erregistratu gabeko instalazioen titularrek izan beharreko dokumentazioa.**

1.– Instalazioak zerbitzuan jartzean indarrean dagoen araudian eskatzen den dokumentazioa izan behar dute erregistratu gabeko instalazioen titularrek. Dokumentazio hori Administrazioaren eta agente lagunzaileen eskura jarri beharko dute.

Hori hala aplikatuko da, hargatik eragotzi gabe Administrazioari lehenago aurkeztutako dokumentuak berriz ez aurkeztekо eskubidea, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioa ez izateak ez du inondik ere esan nahi erregistratu gabeko instalazio baten titularrak agindu honetako 18.2 artikuluan aipatzen den dokumentazioa izan behar ez duenik.

3.– Kontrol-erakunde batek aldizkako ikuskapen batean egiaztatzen badu erregistratu gabeko instalazio baten titularrak ez duela artikulu honetako lehen apartatuan adierazitako dokumentazioa, agindu honetako 13. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

## **18. artikulua.– Instalazioa noiz jarri den zerbitzuan zehaztea.**

1.– Erregistratu gabeko instalazioak noiz jarri ziren zerbitzuan zehazteko, instalazioen titularren instalazio-ziurtagiria hartuko da aintzat, halakorik baldin badute.

2.– Ezinezkoa bada aurreko apartatuan aurreikusitako moduan zehaztea instalazioa noiz jarri zen zerbitzuan, data horren zantzu bat ematen duen dokumentazioa erabili ahal izango da horretarako, hala nola: artxiboetan mantentze-lanen berri ematen duten datu zaharrenak; hasierako jarduera-lizentzia, irekitzekoa edo jardunean jartzekoa; instalazioa dagoen higiezinaren erregistro-inskripzioak; instalazioa diseinatzeko, proiektatzeko edo exekutatzeko sinatutako kontratua, eta data jakiteko balio duen beste edozein datu.

3.– Ezinezkoa da bada aurreko bi apartatuetan aurreikusitakoaren arabera zehaztea instalazioa zer egunetan jarri zen zerbitzuan, Administrazioak lehen aldiz noiz izan duen edo izango duen kasuan kasuko instalazioaren berri, egun horixe hartuko da aintzat, eta horren arabera ezarriko zer araudi aplikatu behar zaion.

4.– Baldin eta organo eskudunak susmo sendoak badauzka aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerbitzu-hasierako data zuzena ez dela pentsatzeko, egoki ikusten dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Organo eskudunak egindako egiazapenen ondorioz beharrezko jotzen bada hasieran finkatutako zerbitzu-hasierako data ez den beste bat ezartzea, organo eskuduna ebaZen arrazoitua emango du horretarako, interesdunari hamar eguneko epean entzunaldia eskaini ondoren.

5.– Artikulu honetan aurreikusitakoaren arabera zerbitzu-hasierako data zehazteko orduan, aintzat hartuko dira instalazioaren erabileran izandako aldaketak eta horiek suteetatik babesteko sistemetan eragindako aldaketak, eraldaketak eta eguneraketak.

6.– Instalazioa zerbitzuan jarri deneko data jasota geratuko da haren titularrek edo hartan jarduten duten agente laguntzaileek Administrazioaren aurrean aurkezten dituzten dokumentuetan.

Instalazioaren titularrak edo kontrol-erakundeak zehaztu ahal izango dute zerbitzu-hasierako data, artikulu honetako 1, 2, 3 eta 5. apartatuetan aurreikusitakoari jarraituz.

7.– Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, dokumentazio-falta ez-betetzetza jo beharko da, dagokion ikuskapen-aktan, agindu honetako 13. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

## **19. artikulua.- Erregistratu gabeko instalazioak inskribatzea.**

1.– Segurtasun industrialeko Administrazioak arauz ezarritako bitartekoren baten bidez baldin badaki jardunean dagoen instalazioren bat erregistratu gabe dagoela, instalazio hori inskribatu beharko da segurtasun industrialeko instalazioen registroan, Segurtasun Industrialari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

Apartatu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, agindu honetako 9. eta 16. artikuluetan ezarritakoak joko dira arauz ezarritako bitartekotzat.

2.– Instalazioa inskribatzeak ez du esan nahi araudia betetzen duenik eta haren titularrak arauz ezarritako dokumentazioa aurkeztu edo izan behar ez duenik agindu honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako eran.

## **20. artikulua.- Erregistratu gabeko instalazioak kontrolatzea.**

1.– Organo eskudunak jardunean dagoen instalazio bat erregistratu gabe dagoela baldin badaki, egoki ikusten dituen jarduketak gauzatu ahal izango ditu, bai eta aplikatzekoaren araudian aurreikusitako dokumentazio oro aurkeztuko eskatu ere.

Zuzendaritza eskudunak bere eskumenak baliatuz diharduela onartzen dituen auditoretza-planetan aintzat hartu beharko da zein diren erregistratu gabeko instalazioen segurtasun-baldintza espezifikoak.

2.– Suteetatik babesteko instalazioen kontrola gauzatzeko, agindu honetako III. kapituluan aurreikusitako aldizkako ikuskapenak egingo dituzte kontrol-erakundeek.

**Lehenengo xedapen gehigarria.– Arauzko bateragarritasuna abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuarekin.**

- 1.– Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren 3. artikuluko 2. apartatuan zehaztutako establezimenduetan dauden instalazioen aldizkako ikuskapenak baliatu ahal izango dira establezimendu horietako erabilera ez-industrialeko eremuetan dauden beste instalazioak ere ikuskatzea (2267/2004 Errege Dekretua, Establezimendu industrialen suteen aurkako segurtasuneko Erregelamendua onartzen duena). Azken ikuskapen hori agindu honetan, 513/2017 Errege Dekretuan eta bete beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera egingo da. Nolanahi ere, ikuskapen hori egiteko, ezinbestekoa izango da kontrol-organoak azken arau horren eremuan dagokion gaikuntza izatea.
- 2.– Aurreko apartatuan ezarritakoa aplikatu ezin bada, instalazioa hartzen duen establezimendua 2267/2004 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren 2. apartatuan finkatutako mugak gainditzen ez dituelako, edo instalazioaren kokalekua sute-sektore independente bat ez delako, instalazioaren ikuskapena 2267/2004 Errege Dekretuan eta bete beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitako forman eta epeetan egingo da.

**Bigarren xedapen gehigarria.– Eranskinen egunерatzea**

- 1.– Industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendariaren ebazpenaren bidez, agindu honen eranskinak aldatu ahal izango dira, haien edukia arau-berrikuntzetara edo garapen teknologikora egokitzea.
- 2.– Eranskin berriak onartzen dituzten ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.
- 3.– Indarrean dauden eredu guztiak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

**Xedapen indargabetzaile bakarra**

Indargabeturik geratzen dira agindu honen bidez araututako arloan aginduan bertan aurreikusitakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak eta, zehazki, 2014ko uztailaren 30eko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Industrialak ez diren eraikinetako suteen aurkako babes instalazioen egiaztagiri-eredua onartzen duena.

**Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.**

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko XXXXaren XX(a).

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,

MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGI

I. ERANSKINA. ENPRESA INSTALATZAILEAREN TXOSTEN-EREDUA, AGINDU HONETAKO 15.3  
ARTIKULUAN AIPATUA

**INDUSTRIALAK EZ DIREN ERAIKINEN SUTEEN AURKAKO BABESERAKO  
INSTALAZIOAREN EGIAZTAGIRIA**  
**CERTIFICADO DE INSTALACION DE PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS  
EN EDIFICIOS NO INDUSTRIALES**

<b>Teknikaria</b> Técnico/a	<b>Zk.</b> Nº.	
<b>ENPRESA INSTALATZAILEA</b> EMPRESA INSTALADORA		
NAN	Tel	Emaila
DNI	Tlf	Email

**HONAKO HAU EGIAZTATZEN DU CERTIFICA**

1. Jarraian azaltzen diren ezaugarriak dituen instalazioa aurkeztutako ziurtagiriaren arabera burutu dela (honekin doaz derrigorrezko memoria\* eta planoak\*\*), sinatzen duen teknikoaren zuzendaritzaren ardurapean, eta (e)an amaitu dela Que la instalación cuyas características se indican a continuación ha sido ejecutada de acuerdo al certificado presentado, acompañado de la memoria\* y los planos\*\* preceptivos y bajo la dirección técnica, de quien suscribe, habiéndose finalizado el día

<b>Titularra</b> Titular	<b>IFK</b> CIF	
<b>Herria</b> Localidad	<b>Kalea</b> Calle	<b>Zk.</b> Nº
<b>Tel.</b> Tlf	<b>Emaila</b> Email	

**INSTALAZIOAREN XEHETASUNAK DATOS DE LA INSTALACIÓN**

<b>Herria</b> Localidad	<b>Kalea</b> Calle	<b>Zk</b> Nº
<b>Iharduera</b> Actividad		
<b>Establezimentuaren izena</b> Nombre del establecimiento		
<b>Eraikitako azalera</b> Superficie construida total	m <sup>2</sup>	
<b>Sute-detekzio eta -alarmako sistemak</b> Sistemas de detección y alarma de incendios		
<b>Suteen aurkako uraren hornidura-sistemak</b> Sistemas de abastecimiento de agua contra incendios		
<b>Suteen aurkako ur-harguneko sistemak</b> Sistemas de hidrantes contra incendios		
<b>Suteetako ur-hargune hornituen sistemak</b> Sistemas de bocas de incendio equipadas		
<b>Zutabe lehorreko sistemak</b> Sistemas de columna seca		
<b>Langarreztagailu automatiko eta ur langartu bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b> Sistemas fijos de extinción por rociadores automáticos y agua pulverizada		
<b>Ur lainoztatu bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b> Sistemas fijos de extinción por agua nebulizada		
<b>Apar fisiko bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b> Sistemas fijos de extinción por espuma física		
<b>Hauts bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b> Sistemas fijos de extinción por polvo		
<b>Agente itzaltaile gaseoso bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b> Sistemas fijos de extinción por agentes extintores gaseosos		
<b>Aerosol kondentsatu bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b> Sistemas fijos de extinción por aerosoles condensados		
<b>Kea eta beroa kontrolatzeko sistemak</b> Sistemas para el control de humos y de calor		
<b>Seinaleztapen luminiszenteko sistemak</b> Sistemas de señalización luminiscente		
<b>Su-itzalgailuak</b> Extintores de incendio		
<b>Suaren aurkako mantak</b> Mantas ignífugas		

\* *Teknikari eskudunak egindako memoria, honako hauetan bilduko dituena: instalazioaren titularra; empresa instalatzailea; erabilera industrialekoa ez den eraikinean edo haren eremuan babestu beharreko arearen hedadura, zerbitzuan jarriko den suteetatik babesteko instalazioaren irismena, haren azalera (m<sup>2</sup>) eta kokalekua zehaztuta, instalatutako ekipamendu eta sistemak (haien ezaugarri teknikoak, markak, egokitasun-ebaluazio teknikoak, halakorik balego, eta merkataritza-markak eta modeloak); eta, instalazioen dimentzionamenduan egindako kalkulu teknikoak* Memoria realizada por técnica o técnico competente, que deberá contener expresión de la persona titular de la instalación, de la empresa instaladora, del alcance del área a proteger del edificio o zona del mismo, del alcance de la instalación de protección contra incendios objeto de este certificado, incluyendo la superficie en m<sup>2</sup> y emplazamiento de la instalación, de los equipos y sistemas instalados (sus características técnicas, marcados, Evaluaciones Técnicas de idoneidad si las hubiere, así como las marcas y modelos comerciales); y de los cálculos técnicos que se hayan podido realizar para comprobar el dimensionamiento de las instalaciones.

\*\* *Teknikari eskudunak egindako planoak, eta, horien artean, honako hauetan: a) Kokapen-planoa eta kokaleku-planoa; eta, b) Suteetatik babesteko ekipamendu eta sistemen planoak: oin-planoak, osagaien kokapena zehaztuta, ekipamenduen eta sistemen irismena eta jarduketak zedarritura, babestu beharreko eremu eta guneei dagokienez, arauzko distantziak egiaztatzeko moduan. Hasiera-eskema, altxaera-planoak eta xehetasunekoak, hala behar izanez gero* Planos realizados por técnica o técnico competente, entre los que deberán figurar los siguientes: a) Plano de situación-emplazamiento; y b) Planos de equipos y sistemas de protección contra incendios: planos de planta con ubicación de los componentes y delimitación del alcance y actuación de los equipos y sistemas a las zonas y áreas a proteger, permitiendo comprobar las distancias reglamentarias. Esquema de principio, planos de alzado y de detalle en caso necesario.

**2. Instalazioak dagozkion eta indarrean dauden araudi edota arauak betetzen dituela eta batez ere: 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22ko (EAO 2017-06-12), instalazioak suteen aurka babesteko Arautegia onartzen duena** Que la instalación cumple la reglamentación y/o normativa aplicable vigente y especialmente el Real Decreto 513/2017, de 22 de mayo (BOE 12-06-2017), por el que se aprueba el Reglamento de instalaciones de protección contra incendios

**3. Beharrekoak diren edota araudiz ezarritako egiaztapen eta frogak, emaitza onesgarriz, gauzatu direla** Que se han realizado, con resultado aceptable, las comprobaciones y pruebas necesarias y/o reglamentariamente establecidas

**4. Ohar edota aldaketak** Observaciones y/o modificaciones

<b>Erregistrorako gunea</b> Espacio para el registro
---

Data Fecha	Enpresa INSTALATZAILEAren teknikari tituludun eskudunaren sinadura Firma del técnico/a titulada competente de la empresa INSTALADORA	Enpresaren zigilua Sello de la empresa
---------------	---	--

II. ERANSKINA. ENPRESA INSTALATZAILEAREN TXOSTEN-EREDUA, AGINDU HONETAKO 15.3  
ARTIKULUAN AIPATUA

**ENPRESA INSTALATZAILEAREN TXOSTENA, ERREGISTRATU GABEKO SUEETATIK  
BABESTEKO INSTALAZIO BATI BURUZKOA**

INFORME DE EMPRESA INSTALADORA SOBRE INSTALACION DE PROTECCIÓN CONTRA  
INCENDIOS NO REGISTRADA

<b>Teknikaria</b> Técnico/a	<b>Zk.</b> Nº
<b>ENPRESA INSTALATZAILEA</b> EMPRESA INSTALADORA	
<b>NAN</b> DNI	<b>Tel</b> Tlf
	<b>Emaila</b> Email

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DU MANIFIESTA**

1. Jarraian aipatzen diren ezaugarriak dituen instalazioa arazorik gabe erabiltzeko eta funtzionatzeko moduan dago, aurkeztutako txostenaren arabera; horrekin batera, memoria\* eta eskala egokiko planoak\*\* aurkeztu dira Que la instalación cuyas características se indican a continuación se encuentra en perfecto uso y funcionamiento de acuerdo al informe presentado, acompañado de memoria\* y planos a escala adecuada\*\*.

<b>Titularra</b> Titular	<b>IFK</b> CIF
<b>Herria</b> Localidad	<b>Kalea</b> Calle
	<b>Helbide</b> elektronikoa
<b>Tel.</b> Tlf	Email

**INSTALAZIOARI BURUZKO DATUAK DATOS DE LA INSTALACIÓN**

<b>Herria Localidad</b>	<b>Kalea Calle</b>	<b>Zk. Nº</b>
<b>Jarduera Actividad</b>		
<b>Establezimenduaren izena</b>		
Nombre del establecimiento		
<b>Azalera eraikia, guztira</b>	<b>m<sup>2</sup></b>	
Superficie construida total		
<b>Mantentze-empresa</b>		<b>Zk. Nº</b>
Empresa mantenedora		
<b>Sute-detekzio eta -alarmako sistemak</b>	Sistemas de detección y alarma de incendios	
<b>Suteen aurkako uraren hornidura-sistemak</b>	Sistemas de abastecimiento de agua contra incendios	
<b>Suteen aurkako ur-harguneko sistemak</b>	Sistemas de hidrantes contra incendios	
<b>Suteetako ur-hargune hornituen sistemak</b>	Sistemas de bocas de incendio equipadas	
<b>Zutabe lehorreko sistemak</b>	Sistemas de columna seca	
<b>Langarreztagailu automatiko eta ur langartu bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b>		
Sistemas fijos de extinción por rociadores automáticos y agua pulverizada		
<b>Ur lainoztatu bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b>	Sistemas fijos de extinción por agua nebulizada	
<b>Apar fisiko bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b>	Sistemas fijos de extinción por espuma física	
<b>Hauts bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b>	Sistemas fijos de extinción por polvo	
<b>Agente itzaltaile gaseoso bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b>		
Sistemas fijos de extinción por agentes extintores gaseosos		
<b>Aerosol kondentsatu bidez sua itzaltzeko sistema finkoak</b>		
Sistemas fijos de extinción por aerosoles condensados		
<b>Kea eta beroa kontrolatzeko sistemak</b>	Sistemas para el control de humos y de calor	
<b>Seinaleztapen luminiszenteko sistemak</b>	Sistemas de señalización luminiscente	
<b>Su-itzalgailuak</b>	Extintores de incendio	
<b>Suaren aurkako mantak</b>	Mantas ignífugas	

\* *Teknikari eskudunak egindako memoria, honako hauetan bilduko dituena: instalazioaren titularra; empresa instalatzailea; erabilera industrialeko ez den eraikinean edo haren eremuan babestu beharreko arearen hedadura, zerbitzuan jarriko den suteetatik babesteko instalazioaren irismena, haren azalera (m<sup>2</sup>) eta kokalekua zehaztuta, instalatutako ekipamendu eta sistemak (haien ezaugarri teknikoak, markak, egokitasun-ebaluazio teknikoak, halakorik balego, eta merkataritza-markak eta modeloak); eta, instalazioen dimentzionamenduan egindako kalkulu teknikoak* Memoria realizada por técnica o técnico competente, que deberá contener expresión de la persona titular de la instalación, de la empresa instaladora, del alcance del área a proteger del edificio o zona del mismo, del alcance de la instalación de protección contra incendios objeto de este informe, incluyendo la superficie en m<sup>2</sup> y emplazamiento de la instalación, de los equipos y sistemas instalados (sus características técnicas, marcados, Evaluaciones Técnicas de idoneidad si las hubiere, así como las marcas y modelos comerciales); y de los cálculos técnicos que se hayan podido realizar para comprobar el dimensionamiento de las instalaciones.

\*\* *Teknikari eskudunak egindako planoak, eta, horien artean, honako hauetan: a) Kokapen-planoa eta kokaleku-planoa; eta, b) Suteetatik babesteko ekipamendu eta sistemaren planoak: oin-planoak, osagaien kokapena zehaztuta, ekipamenduen eta sistemaren irismena eta jarduketak zedarritura, babestu beharreko eremu eta guneei dagokienez, arauzko distantziak egiaztatzeeko moduan. Hasiera-eskema, altxaera-planoak eta xehetasunekoak, hala behar izanez gero* Planos realizados por técnica o técnico competente, entre los que deberán figurar los siguientes: a) Plano de situación-emplazamiento; y b) Planos de equipos y sistemas de protección contra incendios: planos de planta con ubicación de los componentes y delimitación del alcance y actuación de los equipos y sistemas a las zonas y áreas a proteger, permitiendo comprobar las distancias reglamentarias. Esquema de principio, planos de alzado y de detalle en caso necesario.

**2. Diseinu aldetik, instalazioak aplikatu beharreko erregelamendua eta/edo araudia betetzen du**  
Que la instalación, a efectos de diseño, cumple la reglamentación y/o normativa aplicable en su momento.

**3. Beharezko diren eta/edo arauz ezarrita dauden egiaztapen eta probak egin dira, eta emaitza onargarria izan da. Hartara, adierazi egiten da bete direla** Errege Dekretuko preskripzio teknikoak, akatsik egin gabe; izan ere, errege-dekretu hori indarrean zegoen, instalazioa zerbitzuan jarri zen egun egiaztatuan Que se han realizado, con resultado aceptable, las comprobaciones y pruebas necesarias y/o reglamentariamente establecidas al objeto de indicar que se siguen cumpliendo las prescripciones técnicas del Real Decreto , que se encontraba en vigor en la fecha acreditada en que fue puesta en servicio, sin que existan deficiencias conocidas.

**4. Oharrak eta/edo aldaketak** Observaciones y/o modificaciones:

<b>Erregistrorako espazioa</b> Espacio para el registro

Data  
Fecha

**Empresa**  
**INSTALATZAILEAren teknikari tituludun eskudunaren sinadura**  
Firma del técnico/a titulada competente de la empresa  
INSTALADORA

**Empresaren zigailua**  
Sello de la empresa

III. ERANSKINA. ERREGISTRATU GABEKO INSTALAZIO BATEN BERRI JAKINARAZTEKO EREDUA

**SUTEETATIK BABESTEKO INSTALAZIO BAT ERREGISTRATU GABE DAGOELA  
JAKINARAZTEA COMUNICACIÓN DE LA EXISTENCIA DE INSTALACION DE PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS NO REGISTRADA**

■ INTERESDUNA PERSONA INTERESADA

Izena/Sozietatearen izena Nombre/Razón social	IFZ NIF
Kalea Calle	Zk. Nº
Herria Localidad	
Tf.	e-mail

■ INSTALAZIOARI BURUZKO DATUAK DATOS DE LA INSTALACIÓN

Titularra Titular	IFZ NIF
Kalea Calle	Zk. Nº
Herria Localidad	
Tf.	e-mail

■ KOMUNIKAZIOAREKIN BATERA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN QUE SE ACOMPAÑA A LA COMUNICACIÓN

**Instalazio-ziurtagiria edo, bestela, empresa instalatzailearen txostena (II. eranskina).** Certificado de instalación o, en su defecto, informe de la empresa instaladora (Anexo II)

**Instalazioa zerbitzuan noiz jarri den egiaztatzen edo adierazten duen dokumentazioa.** Documentación acreditativa o indicaria de la fecha de puesta en servicio de la instalación.

■ AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN QUE SE DISPONE

**Azken 5 urteetako mantentze-lanen ziurtagiriak.** Certificados de mantenimiento de los últimos 5 años.

....., ....ko .....ren .....a  
....., ... de..... de.....  
(Sinadura eta zigilua Firma y sello)

**ERREGISTRORAKO GUNEA ESPACIO PARA EL REGISTRO**

**(Erregistroko data) (Fecha de registro)**

**(Sarrera erregistroko zk.) (Nº de Registro)**

Dokumentu honetan jasotako datu pertsonalak tratatuko dira, eta "industria-segurtasuneko expedienteen kudeaketa" izeneko tratamendu-jarduerari erantsiko zaizkio.

Los datos de carácter personal que consten en este documento serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada "Gestión de expedientes de seguridad industrial".

**Arduraduna Responsable** **Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila** Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial, Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente  
**Donostia-San Sebastián 1, 01010, Vitoria-Gasteiz, Araba. Tf.: 945018000.**

**Helburua Finalidad** **Industria-instalazioen eta -jardueren industria-segurtasuna kudeatzea** Gestión de la seguridad industrial de las instalaciones y actividades industriales.

**Legitimazioa Legitimación** **Legezko betebehar aplikagarriak betetzeko beharrezko tratamendua (8/2004 Legea, azaroaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzkoa).** Tratamiento necesario para el cumplimiento de obligaciones legales aplicables (Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi).

**Hartzaleak Destinatarios** **Gaitutako kontrol-erakundeak** Organismos de control habilitados

**Eskubideak Derechos** **Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.** Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

**Informazio gehigarria** **Información adicional** **Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehatua kontsulta dezakezu gure webgunean ([https://www.euskadi.eus/informazio\\_klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/134900-capa2-eu.shtml](https://www.euskadi.eus/informazio_klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/134900-capa2-eu.shtml))** Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web (<https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/134900-capa2-es.shtml>)

#### Araudia Normativa

- **2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27ko (DBEO), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena** Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), relativo a la protección de las personas físicas con respecto al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de dichos datos, y por el cual se deroga la Directiva 95/46/CE

- **3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzearei buruzkoa** Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.